

1. jarduera multzoa: zer da jendaurreko ahozko azalpen bat? Zeinek, zeinentzat eta zertarako egin ohi dira?

Jarduera multzoaren helburuak:

- Generoaren ezaugarri nagusiak ezagutzea: helburua, edukiak eta ekoizpenaren egoera komunikatiboa. Hau da jendaurreko ahozko azalpenaren oinarritzko ezagutza lortzea. Zein izan ohi diren azalpenaren helburua, edukiak eta zein izan ohi den ahozko azalpenen egoera komunikatiboa (helburua, igorlea, hartzailea, leku soziala...).

1. ariketa: zer da ahozko azalpena? zeren ingurukoak izan ohi dira ahozko azalpen testuak?

1. testua. Joxemi Telleria. “Ura”. Jakintza ikastolan.

<http://www.youtube.com/watch?v=N6fADnGa0OM&feature=related> (bereziki 0-10’)

2. testua. Blanca Urgell. “25 urte beranduago euskal filologian: dakiguna eta ez dakiguna”. *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Letren Fakultatea, UPV/EHU, Gasteiz. 2012/10/09.

<https://ehutb.ehu.es/video/58c667f5f82b2b7f438b4601> (bereziki 0-2’50’)

- Jendaurreko ahozko azalpen testu hauen hasiera ikusi ondoren, erantzun honako galderei:

1. Zeri buruzkoa da Telleriaren testua? Zein da gai nagusia? Bizpahiru esalditan aipa itzazu testuaren gaia eta helburua.

2. Zeri buruzkoa da Urgellen testua? Zein da gai nagusia? Bizpahiru esalditan aipa itzazu testuaren gaia eta helburua.

3. Alderatu bi testuak eta erantzun: helburu berbera al dute? Zein? Espezializazio mailari dagokionez, maila berekoak al dira biak? Zergatik? Zertan oinarritu zara hori adierazteko?

4 Uste duzu hizlariak nolabaiteko egokitzapenik egiten dutela euren entzuleek gaiari buruz eduki dezaketen jakintza aintzat hartuz? Zeintzuk? Aipa itzazu testu horietako bakoitzean identifikatu dituzun adibideak.

2. ariketa: zein da ahozko azalpenaren egoera komunikatiboa?

- Azter itzazu 1. ariketako azalpen testuak honako galdera hauen bidez:

1. Non egin dituzte ahozko jendaurreko azalpenak? Zein da ahozko azalpen testuaren testuingurua? Eta nori zuzentzen zaizkio? Saia zaitetz informazioa biltzen azalpen testuak egindako jardunaldiei buruz, bereziki.
2. Ezagutzen dituzu testuen egileak? Zer egiten dute lanbidez? Zein da aurkezle bakoitzaren “ikuspuntua” / “rola” azalpen testuaren aurrean?
3. Zein da oro har testuen helburua?

2. jarduera multzoa: jendaurreko azalpenaren planifikazioa; faseak identifikatzea

Jarduera multzoaren helburuak:

- Ahozko azalpenaren faseak zein diren ikastea eta identifikatzen jakitea.

1. ariketa: zein dira ahozko azalpenaren faseak?

1. testua: Juan Carlos Moreno Cabrera “La lingüística y el nacionalismo lingüístico español”, *10 Anys de Filologia Catalana. Unibersitat Oberta de Catalunya* Jardunaldiak, Bartzelona. https://www.youtube.com/watch?v=qJpZgIR_J9E

2. testua: Lander Arbelaitz “Txikitasunetik sareari begira”. *Euskarabildua Jardunaldiak*. Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia. 2012/10/19.
<http://www.argia.com/multimedia/ekitaldia/txikitasunetik-sareari-begira-argia>

3. testua: Céline Mounole “Aditz morfologia zaharraz”. *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Letren Fakultatea, EHU, Vitoria-Gasteiz. 2012/10/09.
<http://ehutb.ehu.es/eu/video/index/uuid/519a2f066d648.html>

- Saia zaitetz Moreno Cabreraren (0-5’), Arbelaitzen (0-2’) eta Mounoleren (0-2’17’’) ahozko azalpenen hasierako faseak identifikatzen eta bakoitza izendatzen . Zein da fase bakoitzaren zeregin nagusia ahozko azalpen testuaren barruan?

- Saia zaitetz Moreno Cabreraren (38’tik aurrera) eta Mounoleren (47’35’’tik aurrera) ahozko azalpenen amaierako faseak identifikatzen eta bakoitza izendatzen. Zein da fase bakoitzaren zeregin nagusia ahozko azalpen testuaren barruan?

4. testua: Jon Etxebeste eta Naia Madariaga. Mintzaira eta Idazkera I irakasgaiko ahozko azalpena. Letren Fakultateko Gradu Aretoa. Gasteiz, 2011/12/15.

- Identifika itzazu Etxebeste eta Madariagaren azalpen testuko faseak.

3. jarduera multzoa: jendaurreko azalpenaren hizkuntzazko eta hizkuntzaz kanpoko ezaugarriak:

Jarduera multzoaren helburuak:

- Jendaurreko azalpenak dituen hizkuntzazko nahiz hizkuntzaz kanpoko ezaugarriak identifikatzea eta ezagutzea.

1. ariketa: zein dira aurkezleek darabiltzaten ezaugarriak? Aztertu hizkuntzari dagozkionak eta hizkuntzaz kanpokoak.

- Aztertu Moreno Cabreraren (0-4'05'' eta 38'-39'30''), Arbelaitzen (0-1'40'') eta Etxebeste eta Madariagaren (0-1'30'' eta 8'15''-tik aurrera) ahozko azalpen testuak eta erantzun honako galdera hauei:

1. Zein dira egileek euren azalpen testuen hasieran darabiltzaten hizkuntzazko formak?

2. Zein dira Moreno Cabrerak eta Etxebeste eta Madariagak euren azalpen testuen amaieran darabiltzaten hizkuntzazko formak?

3. Aztertu Moreno Cabrerak eta Etxebeste eta Madariagak darabiltzaten hizkuntzaz kanpoko baliabideak (gorputzaren, eskuen mugimendua, begirada, ahotsaren bolumena, intonazioa, etab.) eta euskarriak (ppt, testua, oharra, etab.) eta adierazi zein funtzio betetzen duten.

- Ikasle hauek grabatutako azalpen testuak ikusi ondoren, aztertu hizkuntzazko eta hizkuntzaz kanpoko ezaugarriak (hitz-hartzeen kudeaketa, gorputzaren kontrola, ahotsaren kontrola, euskarriak kudeatzea, etab.) jendaurreko ahozko azalpenaren inguruan landutakoa aintzat hartuz,. Adierazi ezaugarriok modu egokian/desegokian erabili dituzten zure erantzuna arrazoituz.

1. "Ezinduak gizartean".

Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=umMPh97UYQY>

2. "Monako"

Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=Vg8LDX6oBYg>

4. jarduera multzoa: grafikoak nola azaldu?

Jarduera multzoaren helburuak:

- Ahozko azalpenak egiterakoan pantailan proiektatzen diren grafikoak behar bezala azaltzen ikastea.

1. ariketa: pantailan agertzen dena eta ahoz azaltzen dena uztartzeko hainbat modu

- Jarraian ahozko azalpen batzuetako hainbat zati ikusiko dituzue. Azter ezazue ea hizlariak egiten al dioten aipamenik pantailan agertzen denari. Hau da, pantailan agertzen denari erreferentzia esplizituak egiten al dizkiote hizlariak? Hizlariaren jarduna zenbat baldintzatzen du pantailan agertutakoak?

1. ahozko azalpena: Joxemi Telleria. “Ura”. Jakintza ikastolan (hasieratik 5’00’’ arte eta 16’00’’ eta 18’20’’artekoa).

<http://www.youtube.com/watch?v=N6fADnGa0OM&feature=related>

2. ahozko azalpena: Patxi Baztarrika. *Hizkuntza eskubideak eta IKT euskaraz jardunaldiak* (hasieratik 5’25’’ arte).

<https://www.youtube.com/watch?v=IqSjLeGUKgg&feature=relmfu>

3. ahozko azalpena: Pablo Suberbiola. “Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilera datuak (Arrue proiektua). Emaidza eta ondorio nagusia”, *Soziolinguistika Jardunaldiak* (hasieratik 6’00’’ arte).

<http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/multimedia>

2. ariketa: nola erabili gorputza eta keinuak pantailako grafikoak azaltzeko?

- Ikusi berriro ere Telleria eta Baztarrikaren ahozko azalpenak eta azter ezazue ea zein den hizlarien posizioa pantailarekiko. Aztertu, horrez gain, ea eskuak eta begirada zenbateraino darabiltzaten grafiko edo irudietan agertzen dena azaltzeko. Zein uste duzue dela baliabide hauek egokien baliatzen dituen hizlaria? Zergatik?

3. ariketa: oinarrizko hizkuntza baliabide batzuk

- Ikusi berriro ere Telleria eta Suberbiolaren ahozko azalpenak (Suberbiolaren beste zati bat ere ikusi: 8’15’’-8’50’’artekoa), eta zerrendatu pantailako irudi eta grafikoak seinatzeko ekoizten dituzten hizkuntzazko markatzaileak. Horrez gain, begiratu ea ikusleei zenbaterainoko informazioa ematen zaien irudi edo grafikoko elementua aurki dezaten. Adibidez, “hemen ikus dezakezue” edo “hemen daukazuen marra gorri honek adierazten du”.

5. jarduera multzoa: jendaurreko azalpenaren prestaketa-lana eta lehen hurbilketa

Jarduera multzoaren helburuak:

- Ahozko azalpena prestatzea eta ahoz azaltzeko lehen saioak egitea.

1. ariketa: sarrerari dagozkion faseak prestatzea

- Azalpen testuari dagozkion faseetarako eskema prestatu. Gogoratu alderdi hauek guztiak aintzat hartzeaz:

- Fase bakoitzari dagozkion edukia (arreta berezia jarri gaiaren sarrera fasean)
- Entzulea aintzat hartzen dela erakusten duten baliabideak (egokitzapenak)
- Hizkuntzazko alderdiak zaintzea
- Hizkuntzaz kanpoko baliabideak aintzat hartzea: begirada, mugimendua, euskarrien kudeaketa, etab.

2. ariketa: azalpen testuaren lehen hurbilketa

- Azalpen testua ikaskideen aurrean ahoz azaldu eta kontrol-zerrenda baliatuz ozenki ebaluatu (ikaskideena eta norberarena, ahal den neurrian).